

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Euskarako oinarrizko lanpostuko teknikari izateko 3 lanpostu betetzeko deialdiak

2249/2022 EBAZPENA, 2022ko azaroaren 15ekoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko kudeatzaileak emana, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Euskarako OLko teknikari izateko hiru lanpostu (A maila) sarrera-prozeduraren bidez betetzeko deialdiak onesten dituena. Lanpostuetako bat oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez beteko da, eta bi lanpostu oposizioaren sistemaren bidez.

PROBA TEORIKOA

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Galdera laburrei erantzuteko, azterketaren edukia eta denbora aintzat harturik, zenbaitetan aski izan liteke paragrafo pare bat. Dena dela, gaia zein den, luzeagoa izan daiteke erantzuna, zuk nahi bezain luzea.

15. eta 16. galderetan, zuzenketa egin beharra dago. Haietan, esaldiaren ondoren, jar ezazu “Ongi dago”, zure ustez hala denean, edo zure ordaina, zure ustez zuzentzekoa bada esaldia.

Legeei buruzko test galdera bakoitzaren ondoren, jarri zure ustez zein den erantzun zuzena.

Parte espezifikuari buruzko galderak.

1. **Euskarazko corpus nagusiak** eta haien ezaugarriak.
2. **Partitiboaren erabilera okerra itzulpenetan.** Adibideak jarri.
3. **Alokutiboaren muga sintaktikoak.** Adibideak jarri.
4. **Kalko linguistikoak.** Zer dira? Motak.
5. **Zer kasutan erabiltzen da letra etzana?**
6. **Aditzaren aspektuak eta kalkoak** itzulpenetan.
7. **“Ahal bezain hurbil, behar bezain urrun”.** Azaldu zer adierazten duen horrek itzulpen lanari gagozkiola.

8. Mendeko perpausen hasiera markatzeko partikulak: atzerakarga ekiditeko “hitz iragarleak”. Eman adibideak.

9. Diptongoz bukatzen diren hitzen deklinabidea (-au, -ai, -ei, -eu...).

10. “Erdi” hitzaren idazkera elkarketetan (adberbioetan, adjektiboetan...).

11. Neurri unitateen idazkera eta joskera. Gomendio nagusiak.

12. Itzultzaile automatiko neuronalen alderdi positiboak eta negatiboak.

13. Erakusleak nola erabili anaforetan. Eman adibideak.

14. Hizkera inklusiboa gaztelaniaz. Eman irizpide nagusiak.

15. Zuzendu aditz hauek, zuzentzekoak baldin badira.

Osasunako jokalariek Taxoaren entrenatzen dute.

Bere eskopetarekin apuntatu zidan.

Behar adina denborarekin abisatuko dizut.

Prozesuak urteak iraun zituen.

Ehun euro balio du.

Heldu nazazu eskutik, mesedez.

Begiratu umea, mesedez, kanpora atera behar dut-eta.

Bixi-bixi saltatu nintzen, eta gero min hartu.

Nik asko izerditzen dut.

16. Mugagabearen erabilera estandarra. Zuzendu esaldi hauek, zuzentzekoak baldin badira:

Sura bota.

Urera botaz gero, hondatu egiten da.

Urteetan ez naiz joan hondartzara.

Irakasleei bost urtetan behin urte sabatikoa hartzeko aukera emanen diete.

Hamar minututan bukatuko dut lana.

Mila metrotan bi aldiz egin dut estropezu.

Joan zen urteko Korrikan, bi kilometrotara joan nintzen.

Umeek lehenbizi lau hankatan ikasten dute ibiltzen, katuka.

Hamar gaztetatik bik ez dute inoiz lanik lortuko.

Parte orokorrari buruzko test galderak.

1. GALDERA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuen arabera (2003/110 Foru Dekretuaren bidez onetsiak 2003ko maiatzaren 12an), noren eginkizuna da estatutuak egitea eta eraberritzea?

- a) Gizarte Kontseiluarena.
- b) Gobernu Kontseiluarena.
- c) Unibertsitateko Klaustroarena.
- d) Nafarroako Gobernuarena, foru dekretu baten bidez, errektoreak proposatuta.

2. GALDERA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuen arabera, zein da erantzun OKERRA Unibertsitateko komunitatearen arartekoari dagokionez?

- a) Klaustroak hautatzen du Unibertsitateko komunitatearen arartekoa.
- b) Haren agintaldia lau urtekoa izanen da, eta ezin izanen du egin bata bestearen segidako agintaldirik.
- c) Unibertsitateko komunitatearen arartekoak zilegi du kargua uztea berak eskatuz gero.
- d) Klaustroak onesten eta aldatzen du arartekoaren funtzionamendurako arautegia.

3. GALDERA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuetako 105. artikularen arabera, zein da erantzun OKERRA?

- a) Nafarroako Unibertsitate Publikoko administrazioko eta zerbitzuetako langileek eginkizun tekniko, administratibo eta kudeatzekoak hartzen dituzte bere gain.
- b) NUPeko administrazioko eta zerbitzuetako langileek aholkuak eta laguntza ematen dituzte Unibertsitatearen eginkizunak garatzean, beren eskumenen esparruan.
- c) NUPeko administrazioko eta zerbitzuetako langileria funtzionarioek eta lan-kontratadun langileek osatzen dute.
- d) NUPeko administrazioko eta zerbitzuetako langileria bertako funtzionarioek eta lan edo administraziozko kontratazio-erregimenean diharduten langileek osatzen dute, bai eta beste Administrazio Publikoetako langileek ere, betiere lege indardunek aurreikusitako eran betetzen badituzte beren eginkizunak Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

4. GALDERA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren hobekuntzarako, haren xedeak burutzeko eta zerbitzu publikoa den aldetik haren funtzionamendua hobetzeko beren esku dagoena egitea...

- a) Ez da Nafarroako Unibertsitate Publikoko administrazioa eta zerbitzuetako langileen betebeharra.
- b) Unibertsitatearen Estatutuetan ez daude araututa NUPEko administrazioa eta zerbitzuetako langileen eskubide eta betebeharrak.
- c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko administrazioa eta zerbitzuetako langileen betebeharrak bat da.
- d) Estatutuek Nafarroako Unibertsitate Publikoko administrazioa eta zerbitzuetako langileei esleitzen dioten betebeharrak bakarrik beren lanpostuari esleituriko eginkizunak behar bezala betetzea da.

5. GALDERA

39/2015 Legearen 35. artikulua arabera (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, 2015eko urriaren 1koa), arrazoitu egin behar dira, egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adieraziz:

- a) Eskubide subjektiboak murrizten ez dituzten egintzak.
- b) Administrazio-errekurtsoetako tramiteko egintzak.
- c) Interesdunen proposatutako frogak onartzen dituzten egintzak.
- d) Ahal diskrezionalak baliatuz emandako egintzak.

6. GALDERA

39/2015 Legearen 35. artikulua arabera (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 2015eko urriaren 1koa), forma-akatsak:

- a) Erabat deuseza egiten du egintza kasu hauetan bakarrik: helburua lortzeko formazko betekizun ezinbestekoak betetzen ez dituen edo interesdunen defentsagabezia eragiten duenean.
- b) Erabat deuseza egiten du egintza kasu guztietan.
- c) Deuseztagarri egiten du egintza kasu guztietan.
- d) Deuseztagarri egiten du egintza kasu hauetan bakarrik: helburua lortzeko formazko betekizun ezinbestekoak betetzen ez dituen edo interesdunen defentsagabezia eragiten duenean.

7. GALDERA

40/2015 Legearen 41. artikulua arabera (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, 2015eko urriaren 1ekoa), zer hartuko da administrazio-jarduketa automatizatutzat?

- a) Edozein egintza edo jarduketa, administrazio publiko batek osorik bitarteko elektronikoz egin administrazio-prozedura baten barruan.
- a) Edozein egintza edo jarduketa, administrazio publiko batek egin administrazio-prozedura baten barruan.
- c) Edozein egintza edo jarduketa, administrazio publiko batek osorik bitarteko elektronikoz egin administrazio-prozedura baten barruan, enplegatu publiko baten zuzeneko esku-hartzerik gabea.
- d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

8. GALDERA

Masterreko ikasketen helburua honakoa da:

- a) Ikasleak jakintza zientifiko, teknologiko, humanistiko eta artistikoaren diziplinetan prestakuntza oinarritzkoa eta jeneralista eskuratzea, kasuan kasuko diziplinaren –edo diziplinen– ezagupenak, gaitasunak eta trebetasunak modu ordenatuan transmitituz, jarduera profesionalean aritzeko prestatzen duena eta herritar izateko prestakuntza osoa bermatzen duena.
- b) Ikasleak jakintza zientifiko, teknologiko, humanistiko eta artistikoan prestakuntza aurreratua, gaiei dagokienez espezializatua edo diziplina anitzekoa eskuratzea, espezializazio akademikora eta profesionalera zuzendua, edo, kasua bada, ikerketa-jarduerak ikastera bideratua.
- c) Ikasleak kalitateko ikerketa unibertsitarioa egiteko behar diren gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea eta garatzea.
- d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

9. GALDERA

Nolakoa da dirulaguntzak emateko prozedura arrunta?

- a) Prozedura irekia.
- b) Norgehiagoka bidez emateko prozedura.
- c) Zuzenean emateko prozedura.
- d) Prozedura murriztua.

10. GALDERA

11/2005 Foru Legeak (Dirulaguntzei buruzkoa, 2005eko azaroaren 9koa) dirulaguntzak itzultzeari buruz zer dioen kontuan hartuta, zein da erantzun OKERRA?

- a) Bidezkoa izanen da eskuratutako kopuruak itzularaztea eta egokiak diren berandutza-korrituak eskatzea dirulaguntza lortu bada horretarako baldintzak bete gabe administrazioari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio.
- b) Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira.
- c) Dirulaguntza itzularazteko espedientea hamabi hilabeteko epean ebatzi beharko da.
- d) Ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio. Diru-sarrera egiteko tokia, modua eta epea adieraziko zaizkio, eta ohartaraziko zaio itzulketa ezarritako epean egiten ez badu premiamendu bideko diru-bilketa prozedura aplikatuko dela.